

# **XAKE AZKARREKO NAFARROAKO BANAKAKO TXAPELKETA.**

**(2022ko apirilaren 9an, Iruñean).**

Iruñeko Printzearen Gotorlekua gazteentzako egoitzan jokatu zen, goizez eta arratsaldez. 25 minutuko partidak izan ziren, zazpi txandatan.

## **AZKENEKO SAILKAPENA, 7 TXANDA JOKATU ONDOREN**

- 1) **Javier Lizuain Toni (2.043) – 6'5 puntu.**
- 2) **Javier Habans Aguerrea (2.344) – 6 puntu.**
- 3) **Haymar Leone Amigot (1.948) – 5'5 puntu.**
- 4) Adrian Oroz Carrasco (1.977) – 5'5 puntu.
- 5) Camilo Lotero (2.145) – 5 puntu.
- 6) Martin Pascual Garcia (1.986) – 5 puntu.
- 7) Rafael Ruiz Escobar (1.923) – 5 puntu.
- 8) Eihartze Buiza Prieto (2.045) – 4'5 puntu.
- 9) Joaquin Ramos Dominguez (2.102) – 4'5 puntu.
- 10) Pedro Viñal Gutierrez (1.894) – 4'5 puntu.
- 11) Mario Antoñanzas Fernandez (1.328) – 4'5 puntu.
- 12) Aritz Idiazabal Troyas (1.988) – 4'5 puntu.
- 13) Iñaki Guardado Minchinela (1.519) – 4 puntu.
- 14) Daniel Mugica Arratibel (1.822) – 4 puntu.
- 15) Ainhoa Ortin Blanco (1.916) – 4 puntu.
- 16) Raul Burriel Ureta (1.439) – 4 puntu.
- 17) Juan Sanciñena Arpide (1.664) – 4 puntu.
- 18) Joseba Otano Villanueva (1.625) – 4 puntu.
- 19) Adolfo Ruiz Anton (1.518) – 4 puntu.
- 20) Txema Domench Perez (1.563) – 4 puntu.
- 21) Antonio Lamolda De Assuncao (1.117) – 3'5 puntu.
- 22) Luca Salas Giralda (1.338) – 3'5 puntu.
- 23) Xabi De la Iglesia Perez (elorik gabe) – 3'5 puntu.
- 24) Jon Goñi Sierro (1.345) – 3 puntu.
- 25) Oleksii Hnatiuk (1.264) – 3 puntu.
- 26) Abel Otazu Casanes (1.212) – 3 puntu.
- 27) Miguel Adrian Abad (1.340) – 3 puntu.
- 28) Ibai Garcia Galardi (elorik gabe) – 3 puntu.
- 29) Lucas Felipe Molina (1.305) – 3 puntu.
- 30) Asier Nieto Larrea (1.447 euskal elokoa) – 3 puntu.
- 31) Anuar Egozcue Sghir (1.023) – 3 puntu.
- 32) Pedro Nieto Gomez (1.278) – 3 puntu.
- 33) Iñigo Ostiz Escalada (1.241) – 2'5 puntu.
- 34) Kaiet Viana Aznar (1.124) – 2 puntu.
- 35) Gorka Gonzalez Alonso (1.083) – 2 puntu.
- 36) Alejandro Vicondo Pena (1.108) – 2 puntu.
- 37) Keira Arregui Gonzalez (1.655 euskal elokoa) – 2 puntu.
- 38) Alain Pinedo Perez (elorik gabe) – 2 puntu.

- 39) Helena Garcia Nuñez (elorik gabe) – 2 puntu.
- 40) Javier Ballaz Etxegoien (elorik gabe) – Puntu bat.
- 41) Perla Sanchez De la Cruz (elorik gabe) – Puntu bat.
- 42) Unax Senosiaín Noriega (1.229) – Puntu bat.
- 43) Ihuen Munuera Pacheco (elorik gabe) – Puntu bat.
- 44) Alfredo Ruiz Turrillas (1.756) – 0 puntu.
- 45) Manuel Gonzalez Llamazares (1.279) – 0 puntu.
- 46) Eliot Munuera Pacheco (elorik gabe) – 0 puntu.


## **TROFEOA IRABAZI ZUTEN HIRU SARITUAK**



Javier Lizuain Toni, txapelduna.



Javier Habans Aguerrea, txapeldunordea.



Haymar Leone Amigot, hirugarren sailkatua.

**JAVIER LIZUAIN TONIK USTEKABEA EMAN ZUEN, JAVIER HABANS AGUERREA GAINDITUTA**

Urte hasieran 13 urte zituen Javier Habans Aguerrea faborito nagusia zen txapelketa irabazteko. Bere eloa (2.344) nabarmen zegoen besteen gainetik (ia 200 puntuo aldea ranking-eko bigarrenarekiko). Oberenan jokatzen duen xakelari gazte hau oso txapelketa ona egiten ari zen, azkeneko partida iritsi arte. Jokalari hauei irabazi zien: Luca Salas Giralda, Pedro Viñal Gutierrez, Adrian Oroz Carrasco, Eihartze Buiza Prieto, Camilo Lotero eta Haymar Leone Amigot. Hala ere, huts egin zuen azkeneko partidan. Javier Lizuain Tonik irabazi zion eta, gainera, txapelketa bere aldera eraman zuen. Adin guztietarako txapelketetan Nafarroako bere lehenengo titulua da (banaka, bederen).

Javier Habanek gaitasun izugarria dauka xakerako. Bere adinerako duen eloak garbi adierazten du hori. Baino bere gorabeherak ditu eta batzuetan huts egiten du. Kasu honetan, txapelketa joan zitzzion partida horretan, aurkari zail sorta bat gainditu eta gero.

Javier Lizuain Tonik 6'5 puntu egin zituen. Beraz, merezimendu osoz txapeldun izan zen. Partida erabakigarria irabazi zion Javier Habansi. Bere buruarekiko konfidantza transmititzen du. Bosgarren zerrendaburua zen eta Javier Habansen aldean oro har aurkariak zertxobait samurragoak izan zituen: Olksii Hnatiuk, Iñaki Guardado Minchinela, Jon Goñi Sierro, Joaquin Ramos Dominguez, Haymar Leone Amigot, eta Eihartze Buiza Prieto. Haymar Leonerekin berdindu zuen eta gainontzeko irabazi zien. Partida erabakigarria iritsi zen horrela eta, gero, partida hori irabazi zuen Javier Habansen aurka. Donibane Kirol Elkartean jokatzen du eta 20 urte zituen urte hasieran.

Hirugarren postua Orvinako Haymar Leone Amigotentzat izan zen, 5'5 puntu. Javier Lizuainenkin berdindu zuen eta Javier Habansen aurka galdu. Gainontzeko partidak irabazi zituen. Urte hasieran 14 urte zituen.

Adrian Oroz Carrasco (5'5 puntu) eta Camilo Lotero (5 puntu) sailkatu ziren ondoren. Biak Mikel Gureakoak dira eta podiumetik oso gertu geratu ziren. 5 puntu amaitu zuten Martin Pascual Garcia (urreko txapelduna) eta Rafael Ruiz Escobar jokalariek ere. Martin Pascual Garciam partida azkarretan ongi moldatzen dela erakutsi zuen berriz, nahiz eta txapelketa honetan seigarren geratu. Rafael Ruiz Escobar superbeteranoak itzaltzen ez den sugarra erakutsi zuen berriro.

Goian egoteko faborito ziren beste batzuk apal ibili ziren. Adibidez, Joaquin Ramos Dominguez (bederatzigarren, 4'5 puntu), Aritz Idiazabal Troyas (hamabigarren, 4'5 puntu) eta Ainhoa Ortin Blanco (hamabosgarren, 4 puntu).

46 jokalarik eman zuten izena eta 43k jokatu zuten. lazko urtean (pandemia garaian) 40 izan ziren. Alde handirik ez. Post-pandemian gaudela errateko goiz da, hala ere.

## **TXAPELKETA HONETAKO AZKENEKO HISTORIA.**

2005-06ko denboraldian: **David Arjol Etxeberria**, garaile; **Gonzalo Mombiela Martinez**, bigarren; **Miguel Argaya Urdaniz**, hirugarren.

2006-07ko denboraldian: **Imanol Martinez Salas**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Rafael Ruiz Escobar**, hirugarren.

2007-08ko denboraldian: **Miguel Argaya Urdaniz**, garaile; **Angel Agudo Tena**, bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, hirugarren.

2008-09ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2010-11ko denboraldian: **Ivan Tetimov**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Egoi Hernandorena De la Cruz**, hirugarren.

2011-12ko denboraldian: **Aritz Mancha Otano**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Iñaki Esparza Martinez**, hirugarren.

2012-13ko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile; **Aritz Mancha Otano**, bigarren; **Pablo Urriza Iricibar**, hirugarren.

2013-14ko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile; **Mikel Ortega Lopez**, bigarren; **Iker Irañeta Unzue**, hirugarren.

2014-15eko denboraldian: **Mikel Ortega Lopez**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Aitor Martinez Ayesa**, hirugarren.

2015-16ko denboraldian: **Mikel Ortega Lopez**, garaile; **Daniel Roldan Marques**, bigarren; **Luis David Jimenez Almeida**, hirugarren.

2016-17ko denboraldian: **Ainhoa Ortin Blanco**, garaile; **Iñigo Ortin Blanco**, bigarren; **Daniel Roldan Marques**, hirugarren.

2017-18ko denboraldian: **Daniel Roldan Marques**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Alexandr Pedchenko Zhilkov**, hirugarren.

2018-19ko denboraldian: **Daniel Roldan Marques**, garaile; **Leyre Abrisqueta Zudaire**, bigarren; **Juan Labiano Hernandez**, hirugarren.

2019-20ko denboraldian: **Martin Pascual Garcia**, garaile; **Iker Fernandez Cobos**, bigarren; **Haymar Leone Amigot**, hirugarren.

2020-21eko denboraldian: **Martin Pascual Garcia**, garaile; **Juan Labiano Hernandez**, bigarren; **Cristian Atipov Hadzhiev**, hirugarren.

2021-22ko denboraldian: **Javier Lizuain Toni**, garaile; **Javier Habans Aguerrea**, bigarren; **Haynar Leone Amigot**, hirugarren.

## **PALMARESA, 2005-06KO DENBORALDITIK**

- 1) **Luis David Jimenez Almeida – 2 titulu.**
- 2) **Mikel Ortega Lopez – 2 titulu.**
- 3) **Martin Pascual Garcia – 2 titulu.**
- 4) **Daniel Roldan Marques – 2 titulu.**
- 5) Miguel Argaya Urdaniz – Titulu bat.
- 6) David Arjol Etxeberria – Titulu bat.
- 7) Javier Lizuain Toni – Titulu bat.
- 8) Aritz Mancha Otano – Titulu bat.
- 9) Imanol Martinez Salas – Titulu bat.
- 10) Ainhoa Ortin Blanco – Titulu bat.
- 11) Ivan Tetimov – Titulu bat.
- 12) Pedro Viñal Gutierrez – Titulu bat.

**2022-04-09.**

Iturria: “<https://info64.org/campeonato-navarro-de-ajedrez-rapido-individual/standings>” webgunea.

